

Non eta noiz izango dira azterketak?

Barakaldoko BECen: **1. eta 2. pabiloietan, azaroaren 6an.**

Zer eraman behar duzu ezinbestez azterketa-egunean?

- NANA
- Boligrafo urdina edo beltza
- Maskara kirurgikoa edo FFP2 (BECeko eremu osoan erabili beharko duzu)
- Identifikazio-orri biak

Identifikazio-orriak zeuk inprimatuta eraman behar dituzu:

Orri batean zure datuak agertzen dira. Beste orrian, aldiz, QR kodea dago, zure anonimotasuna bermatzeko. **Kodea duen orria idazlanaren orriarekin batera entregatu beharko duzu azterketa-egunean eta bestea zeuretzat izango da.**

IDENTIFIKAZIO ORRIA

IDAZTEKO ORRIA

Nola lor ditzakezu identifikazio-orriak?

Identifikazio-orriak AZTERNET aplikaziotik deskargatu eta inprimatu behar dituzu helbide honetan:

www.ivap.euskadi.eus – euskara – hizkuntza-eskakizunak – Azternet

Baina, horretarako, **ziurtagiri digitala** behar duzu.



IVAPek **B@kQ** txartel birtuala gomendatzen dizu ziurtagiri digital gisa. Honako helbide honetan aurkituko duzu non eta nola eskatu:

<https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>

B@kQ txartel birtuala lortzen duzunean, e-mail bat jasoko duzu zure klabeekin (itsasontzi-jokoa erabiltzeko zenbaki- eta letra-konbinazioa eta pasahitza) eta horien bidez Azterneten sartu ahal izango zara.

Horrelako pantaila bat agertuko zaizu Azterneten sartzeko:

Zure B@KQ txartelak ez badu itsasontzi-jokoa erabiltzeko klaberik, B@KQ + SMS kodea aukera erabili behar duzu:

Eremu guztiak beteta, aplikaziora sartuko zara.

Ibilbide honetan: **Eskabideak – HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK – Eskabideen kontsulta eta jarraipena** eremuan klik eginda, oraingo deialdiko zehaztasun guztiak aurkituko dituzu, identifikazio-orriak deskargatu eta inprimatzeko aukera barne.

< Hasiera orria

Zer ordutan hasiko dira azterketak?

1. HE 17:30ean
2. HE Txanda bi egongo dira: bata 09:00etan eta bestea 10:00etan. KONTUZ! *
3. HE Txanda bi egongo dira: bata 12:30ean eta bestea 13:30ean. KONTUZ! *
4. HE 16:30ean

* Beherago kontsulta ezazu zein txandatan egokitu zaizun.

Zenbat denbora lehenago joan behar duzu BECera azterketa-egunean?

Gomendatzen dizugu **ordu erdi** lehenago joatea, baina ez askoz ere lehenago jende-pilaketak ekiditeko.

Lagunduta sar zaitetzke BECera?

Ez; oraingo honetan, **azterketariak baino ez dira sartuko.**

Nondik sartu behar duzu BECera?

BECeko sarrera nagusitik sartuko zara, bi ate izango dituzu horretarako, baina **zuri dagokizun pabiloiko atetik sartu beharko duzu. Ondo begiratu zer pabiloitan, ordutan eta gunetan egin behar duzun azterketa!** Halaber, pertsonen arteko segurtasun-distantzia gorde beharko duzu sartzean eta sarrerako eskailerak igotzean.

*** Zer pabiloitan, ordutan eta gunetan egin behar duzu azterketa?**

1. HE 2. PABILOIA 17:30				
H.E.	ORDUA	PABILOIA	GUNEA	ABIZENAK
1. HE	17:30	2. PABILOIA	ATURRI	ACEDO - CALLEJA
1. HE	17:30	2. PABILOIA	BAIA	CALVO - FERRANDEZ
1. HE	17:30	2. PABILOIA	ERROBI	FLORES - HUN
1. HE	17:30	2. PABILOIA	IRATI	IGLESIAS - MORATO
1. HE	17:30	2. PABILOIA	LEA	MORENO - RODRIGUEZ
1. HE	17:30	2. PABILOIA	NERBIOI	ROJAS - ZULUETA

2. HE 1. TXANDA					
TXANDA	ORDUA	PABILOIA	GUNEA	ABIZENAK	
1. TXANDA	09:00	1. PABILOIA	ARATZ	ABAD - ARTAZA	
1. TXANDA	09:00	1. PABILOIA	GORBEIA	ARTEAGA - BUSTEROS	
1. TXANDA	09:00	1. PABILOIA	HERNIO	CABALLERO - DELGADO	
1. TXANDA	09:00	1. PABILOIA	KOLITZA	DIAZ - GAJATE	
1. TXANDA	09:00	1. PABILOIA	LARHUN	GALAN - GONZALEZ MURO	
1. TXANDA	09:00	1. PABILOIA	ORHI	GONZALEZ ORIA - LANDALUCE	
2. HE 2. TXANDA					
TXANDA	ORDUA	PABILOIA	GUNEA	ABIZENAK	
2. TXANDA	10:00	2. PABILOIA	ATURRI	LARRAURI - MARTIN	
2. TXANDA	10:00	2. PABILOIA	BAIA	MARTINEZ - NUTINI	
2. TXANDA	10:00	2. PABILOIA	ERROBI	OBREGON - PRADOS	
2. TXANDA	10:00	2. PABILOIA	IRATI	PRIETO - RUIZ	
2. TXANDA	10:00	2. PABILOIA	LEA	SABARIEGO - SUSO	
2. TXANDA	10:00	2. PABILOIA	NERBIOI	TAMAYO - ZUZA	

3. HE 1. TXANDA					
TXANDA	ORDUA	PABILOIA	GUNEA	ABIZENAK	
1. TXANDA	12:30	1. PABILOIA	ARATZ	ABAD - ARRAZURIA	
1. TXANDA	12:30	1. PABILOIA	GORBEIA	ARREAL - BUSTAMANTE	
1. TXANDA	12:30	1. PABILOIA	HERNIO	CABALLERO - DIAZ	
1. TXANDA	12:30	1. PABILOIA	KOLITZA	DIEGUEZ - FERNANDEZ	
1. TXANDA	12:30	1. PABILOIA	LARHUN	FERNANDINO - GOITISOLO	
1. TXANDA	12:30	1. PABILOIA	ORHI	GOMEZ - ISPIERTO	

3. HE 2. TXANDA				
TXANDA	ORDUA	PABILOIA	GUNEA	ABIZENAK
2. TXANDA	13:30	2. PABILOIA	ATURRI	ITURBE - MARIA
2. TXANDA	13:30	2. PABILOIA	BAIA	MARKIEGI - MOYA
2. TXANDA	13:30	2. PABILOIA	ERROBI	MUGABURE - PAZOS
2. TXANDA	13:30	2. PABILOIA	IRATI	PEDRIDO - ROJO
2. TXANDA	13:30	2. PABILOIA	LEA	ROMERO - TRIGUERO
2. TXANDA	13:30	2. PABILOIA	NERBIOI	UDAONDO - ZURIARRAIN

4. HE 1. PABILOIA 16:30				
H.E.	ORDUA	PABILOIA	GUNEA	ABIZENAK
4. HE	16:30	1. PABILOIA	ARTAZ	ABOITIZ - BASTIAS
4. HE	16:30	1. PABILOIA	GORBEIA	BATARRITA - ESTEVEZ
4. HE	16:30	1. PABILOIA	HERNIO	ETXANIZ - HURTADO
4. HE	16:30	1. PABILOIA	KOLITZA	IBAÑEZ - MOYANO
4. HE	16:30	1. PABILOIA	LARHUN	MUGICA - RUIZ
4. HE	16:30	1. PABILOIA	ORHI	SAENZ - ZUMALDE

Zer egin behar duzu zuri egokitu zaizun gunera heltzean?

NANA eta identifikazio-orriak eskuan dituzula, zaintzaileak zehazten duen lekuan jarri beharko duzu; eta NANA, identifikazio-orriak eta boligrafoa baino ezin izango dituzu eduki mahai gainean. Guneetan bermatuta egongo da segurtasuneko gutxieneko distantzia azterketarien artean.

Zenbat denbora iraungo du azterketak?

- 1. HE 1 h
- 2. HE 1h 10'
- 3. HE 1h 25'
- 4. HE 1h 45'

Zenbat ariketa izango dira?

Hizkuntza-eskakizun guztietan irakurmen-probak bi ariketa izango ditu, eta idazmen-probak ariketa bakarra.

Azterketak irauten duen bitartean komunera joan zaitezke?

Ez, azterketak askoz laburragoak dira oraingo honetan; beraz, oso larria ez bada, ezin izango zara komunera joan.

Azterketa lehenago amaitzen baduzu, BECetik alde egin dezakezu?

Txanda bat baino gehiago dauden hizkuntza-eskakizunetan, hau da, 2. eta 3. HEetan, ezin izango da irten azterketa hasten denetik gutxienez ordubete pasatu arte. Era berean, azterketak amaitu ondoren, pabiloiko atzeko atek erabili beharko dira bertatik irteteko.

Nola lor dezakezu azterketara joan izanaren ziurtagiria?

Identifikazio-orriak bezala, AZTERNET aplikaziotik deskargatu eta inprimatu beharko da.

Garbitasuna dela eta, zer neurri hartuko ditu IVAPek?

Azterketariak BECera sartzean eta pabiloitik irtetean, gel hidroalkoholkoa emango zaie eskuak desinfektatzeko. Horrez gain, azterketa-txanda bakoitza bukatu eta hurrengoa hasi baino lehen, guneak, pabiloiak, komunak eta igarobide guztiak garbitu eta desinfektatu egingo dira.